

ASTEARTEA

2019/12/10

7. urtea, 1.157. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

1.000 euroko sari nagusia banatuko du Tolosa&Co-k 'Urrezko goxokia' kanpainan

Ekitaldi ugari izango dira Gabonetan, erraldoien tailerra eta kontzertuak, kasu; Zumardia elkarteak antolatutako Olentzaroren Basoak abenduaren 16an irekiko ditu ateak // 3



Atzo egin zuen Tolosa&Co elkarteak kanpainaren aurkezpena. ITZEA URKIZU

Kultur ekitaldi ugari antolatu dituzte Alkizan, abendurako

Aranzadi elkarteak emango duen 'Alkiza eta bere ingurua historiaurrean' hitzaldia izango da bihar, egitasmoei hasiera emateko // 2

Imanol Rojo 30. postuan sailkatu da Munduko Kopan

Norwegian jokaturako proban denboraldirako jarria zuen helburua lortu du, eta «indarberrituta» dagoela adierazi du // 7

Jakak, Artolak eta Altunak garaipena, hirugarren jardunaldian

Jaka eta Artola sailkapeneko lehen postuan daude; Altuna, berriz, bosgarren postuan dago puntu batekin // 6



ALTZO

AZOKA JENDETSUA

Olentzerotan Jakin-Minez ekimena abiarazi zuten herenegun azoka bereziarekin; 35 postu jarri zituzten frontoian eta jendetza gerturatu zen; ostiralean Loatzo musika eskolako emanaldia izango dute // 4

JOSU ARTUTXA

*Egin zure erosketak Ibarraan
abenduaren 9tik urtarrilaren 3ra*
Sariak:



Zozketa eguna: Urriak 3, 20:00etan.



*Sariak ez dira inoiz eskudirutan emango

Kultur egitasmoei hasiera emateko prest daude Alkizan

Alkizako historiaurrearen inguruko hitzaldia eskainiko du Jesus Tapia Aranzadi zientzia elkarteko kideak, bihar, 19:00etan, Fagus Alkiza interpretazio zentroan

Erredakzioa

Abendurako kultur ekitaldi ugari antolatu ditu Alkizako Udalak. Herritarrek izango dute zertaz gozatua Gabon bueltako egunetan. Bihar emango diote hasiera egitarauari hitzaldi batekin, eta abenduaren 22an amaituko dute herriko musikari gaztetxoek kontzertu batekin.

Datorren urtarrilaren 31ra arte, *Bigarren mailako errefuxiatuak* erakusketa ikusgai izango da Fagus Alkiza interpretazio zentroan. Antonio Ruiz argazki kazetariaren argazkiak jarri dituzte. Norabait iritsi eta pertsonen oinarritzko eskubideak izateko hesi gainetik salto egiteko prest dauden pertsonen, aterpetuak izan nahi eta horretarako aukera ukatzen zaien gizon-emakume horiei erreparatu die Ruizek erakusketan.

BIHAR, LEHENA

Egitasmoei hasiera emateko, *Alkiza eta bere ingurua historiaurrean* hitzaldia eskainiko du Jesus Tapia Aranzadi zientzia elkarteko kideak, bihar, 19:00etan, Fagus Alkiza interpretazio zentroan.

Orain arte Alkizan egin diren indusketetako arrastoak aintzat hartuz, Hernio mendiaren ingurua lehen gizakiaren bizitokieta bat izan zela ondorioztatua dute. Hitzaldian, historiaurrean



Jesus Tapia arkeologoa tailerra eskaini du aurtan, Alkizako sanmartinetan. J.M.

Alkiza ingurua nolakoa zen eta bertako gizakia nola bizi zen azalduko du.

ABENDUAK 13, OSTIRALA

Ostiralean, *Sormenaren Kabia 2019* egitasmoaren aurkezpena egingo dute, 19:00etan hasita, Fagus Alkizan.

Sormena eta kultura hiri eta herri handietatik deszentralizatzeko asmoarekin jarri zuten martxan Sormenaren Kabia egitasmoa: «Alkizako landa eremua sormena landu nahi duten artistentzat toki paregabea da». Horretan sinetsita jarri zuten martxan proiektua.

Artistentzako egonaldien bigarren ekitaldian Nagore Legarreta eta Beñat Ralla sortzaileen proiektuak izan dira aukeratuak. Legarretak, ontziekin argazki kamerak sortu eta argazkiak atera-

tzen irakatsi du bere egonaldian zehar. Zertarako baina? Zergatik? Ostiralean jakin ahalko dira erantzunak.

Beñat Rallak, berriz, MugMus Laborategiko Jone Amezaga, Ioritz Galarraga eta Iñar Sastre kideak bidelagun izan ditu. *Garaiz: 60 taupada minutuko* obra egin dute eta horren inguruko xehetasunak emango dituzte.

Bestalde, Unai Sorarrain bideogile alkizarra sortzaileen alboan izan da herrian egin duten egonaldian zehar; baita Alkizatik kanpora ere. Ostiral honetan, beraz, ikus-entzunezko horiek jendaurrean aurkeztuko ditu eta bertan izango dira Nagore Legarreta eta Beñat Ralla ere, lehen eskutik esperientzia kontatzeko. Ekitaldi amaieran Alkizako Ostatuan egindako mokadu batzuk dastatzeko aukera izango da.

ABENDUAK 14, LARUNBATA

Larunbatari sorkuntza lantegiarekin emango diote hasiera,

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Ile apaintzailea. Tolosako IRRIKA Ile-apaintzeak esperintziadun ile apaintzaile bat behar du, arratsaldetan lan egiteko, lanaldi erdian. Interesa dutenek, dei dezatela 943 50 84 93 telefonora.

Zerbitzari eta sukaldaria. Tolosako sagardotegi batean langilea behar da zerbitzari eta sukaldari lanak egi-

10:00etan, kultur etxean. Ainhoa Redondo ilustratzaileak familia giroan sormena lantzeko lantegia eskainiko du. Marrazketa, monotipoa eta collage teknika erabilita, haurrek eta euren guraso edo tutoreek elkarrekin une goxo batez gozatzeko aukera izango dute. Lantegian zehar artelan bat egingo dute eta marko dotore batekin etxera eramango dute oroigarri moduan.

Partaide kopurua mugatua denez, beharrezkoa izango da aurrez izena ematea. Gehienez 6 bikoteko taldea onartuko da eta lantegia burutzeko, gutxienez, 4 bikotek eman beharko dute izena. Hamabi lagunek baino gehiagok izena emango balute, zozketa bidez erabakiko da norzuk hartuko duten parte. Gainerakoentzat beste lantegi bat antolatuko dute datorren urtean. Izena emateko azken eguna bihar izango da, eta kultura@alkiza.eus helbidera idatzita edota 688 604 466 zenbakira deituta edo whatsapp bidalita egin daiteke. 10 euro ordaindu beharko du familia bakoitzak.

ABENDUAK 16, ASTELEHENA

Migratzaileen Nazioarteko Egunaren harira, kulturarteko bizi-kidetzan balio etikoak sustatzeko *Aniztasuna* antzerki-foruma eskainiko du Baketik-ek. Fagus Alkizan izango da, 19:00etan. Helburua errespetuak duen balioa ulertaraztea da, migratzaileen inguruko estereotipoak modu kritikoa identifikatuz.

«Ertz asko dituen gai sakona» landuko dutela aurreratu dute; beraz, haurrik gabe joateko gomendioa egin dute. Antzerki parte-hartzailea izango da eta bertaratu nahi dutenek izena eman beharko dute aurrez, aipatutako helbideetan.

ABENDUAK 22, IGANDEA

Ekitaldiei amaiera emateko, herriko musikari gaztetxoek Gabonetako kontzertua eskainiko dute Fagus Alkizan, 19:00etan. Urte guztian zehar Maixa Lizarribar, Shrabani Aranzabe eta Martin Lizardi irakasleekin ikasitakoa plazaratuko dute.

Energia berriztagarrien inguruko saiorako izen ematea, zabalik

Villabonan abenduaren 16an izango da, eta bihar izango da izena emateko azken eguna; Anoetan, berriz, gaur egingo dute

Erredakzioa

Gipuzkoa Argitu programaren baitan, etxebizitzetan energia berriztagarriak ezartzeko aukeren inguruan informazioa emateko tailerra antolatu dute abenduaren 16an Villabonan. 18:30ean izango da, Subijana etxean. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako departamentuak antolatu du Amasa-Villabonako Udalarekin elkarlanean. Bihar izango da izena emateko azken eguna: leire@laiacoop.eus helbidera idatzita edota 605 757 687 telefono zenbakira deituta egin daiteke.

Energia berriztagarriak zure etxean... posible da! tailerraren helburua herritarrek energia berriztagarriak ezarri ahal izateko beharrezkoak diren irizpideak eta ezagupenak modu argi eta ulergarri batean eskaintzea dela azaldu dute. Energia berriztagarrien ezarpenak araudiari lotutako aldaketak jasan ditu berriki eta aldaketa horiek teknologia horien ezarpena erraztu dute, bai banakako etxebizitzetan eta baita etxebizitza blokeetan ere.

Izaera praktikoa izango duen saioari esker, energia berriztagarrien instalazioak aurrera eraman ahal izateko baldintzak zeintzuk diren argituko ditu gaian berezituriko aditu batek. Aldi berean, dagoeneko martxan dauden instalazioen benetako kasu praktiko bidez, instalazio horietan sortutako energia nola erabil daitekeen azalduko du.

BAITA ANOETANERE

Anoetan gaur bertan egingo dute, 18:00etan, pleno aretoan. Izena emateko epea amaituta badago ere, bertaratu nahi duenak aukera izango du oraindik.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik. Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus/en

teko, txotx denboraldian. Interesa dutenek dei dezatela 660 65 43 17 telefonora.

Zaintza lanak eta etxeko lanak.

Adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da, Tolosa erdigunean. Astelehenetik larunbatera egin beharko luke lan, 40 orduz. Interesa dutenek dei dezatela 600 56 20 73 zenbakira.

Gabonak gozokizko saritan ospatuko ditu Tolosa&Co-k

Gaur hasiko da 'Urrezko Goxokia' kanpaina eta, 1.000 euroko saria duen gozokiaz gain, ia beste 500 sari banatuko dituzte bezeroen artean

Itzea Urkizu Arsuaga

Joan den ostegunaz geroztik, Eguberri argitan jantzia da Tolosa, zentzu guztietan. Apaingarriez harago ere, udalak eta herriko eragileek argiztatu egin nahi baitute Gabonetarainoko bidea, jardueraz. Horrela, Tolosa&Co merkatari eta ostalari elkarteak gaur bertan ekingo dio *Urrezko Goxokia* kanpainari, bigarren urtez.

Iaz zenbait gozokik sari potoloak banatu baldin bazituzten, aurten sistema aldatu, eta gozoki gehiagok banatuko dituzte sariak. Horrela, katiluak, oihalezko poltsak, erosketa txekeak eta ostalaritza txekeak irabazteko aukera izango dute herritarrek; guztira, ia 500 sari banatuko dituzte.

Urrezko Goxokia izango da

sari handiena, eta 1.000 euro jasoko ditu gozoki hori zabaltzen duen bezeroak. Horrez gain, Tolosa&Co-k beste 1.000 euro banatuko ditu txeketan, elkarteak saltokietan erabiltzeko. Azkenik, kontsumo txekeak ere izango dira, komertzioetan nahiz ostalaritzan deskontu txikiak eskuratzeko.

Gozoki saridunek kodeak izango dituzte, eta bezeroek www.tolosandco.org webgunean sartu beharko dute, txekeak eskuratu ahal izateko; elkarteak bezeroei zuzenean bidaliko dizkie txekeak.

ERRALDOI AK EGITEN ETA ERRALDOI ZATEN IKASTEN

Erraldoi eta buruhandien tailerra antolatu du Tolosa&Co elkarteak, Erraldoi eta Buruhandian konpartsaekin elkarlanean.

Tailer bakoitzak hiru eguneko iraupena izango du, eta taldeak adinaren arabera banatuko dituzte. Izena ostegunean 20:00etatik aurrera eman ahal izango da, www.tolosandco.org webgunean, 5 euroan, eta talde bakoitzean, gehienez ere, 25 haur ariko dira.

Lehen txanda abenduaren 23, 25 eta 27koa izango da eta, bigarrena, abenduaren 30, eta urtarriaren 2 eta 3koa. Ordu-tegiak, berriz, horrela antolatu dituzte: 4 eta 7 urte bitartekoak, 10:00etatik 11:35era, edo 17:30etik 19:00etara; eta, 8 eta 11 urte bitartekoak, 11:45etik 13:15era edo 15:45etik 17:15era.

Buruhandi eta erraldoiak benetako neurrian egingo dituzte ikastaroko lehen egunean, eta erraldoien dantza ikasiko dute bigarren saioan. Azkenik, erral-



Gaur bertan hasiko dira gozokiak banatzen. I. URKIZU

doi eta buruhandien osagarriak egin, eta kalejira txikiak egingo dituzte Tolosako kaleetan barrena.

HERRI BAT, IZARREZ BETETA

Gabonak girotzeko ahaleginean, herriko merkatari eta ostalariak musikari tarte nabarmena eman izan diote azken urteotan. Datuzen egunotan ere hala izango da,

eta herriko eta eskualdeko musikarien eskutik, gainera, *Tolosa izarrez beteta* kanpainaren bide-tik.

Hilaren 18an hasi, eta urtarriaren 4ra bitarte, kaleak kontzertu txikiz beteko dira Tolosan, 11:30ean eta 18:00etan. Emanaldien agenda nahiz Gabon egitarau osoa eskuragarri daude, www.ataria.eus/agenda atalean.

Olentzaroren Basoak datorren abenduaren 16an zabalduko du Elozegi parkeko atea, bisitekin hasteko; www.zumardia.eus atarian eskura daitezke sarrerak.

Baso bat Eguberrien bihotzean

I. Urkizu Arsuaga

Gabonen erdigunea bilakatu zen, iaz, Elozegi parkeko Olentzaroren Basoa, haur eta gaztetxoenen begietan. Zumardia elkarteak ibilbide magikoa prestatu zuen, Juan Kruz Igerabideren *Eguberria* ipuina oinarri hartu, eta neguko solstizioaren bueltako usadio eta ohiturak euskal mitologiarekin lotuz. Horrela, bigarren bisitatu ahal izango da, aurten, baso miresgarria, abenduaren 16tik 23ra bitarte.

Zumardia elkarteak Tolosako Udalaren laguntza izan du egi-

tasmoan, eta Joseba Ormazabal gazteria saileko arduradunak eskerrak eman dizkio elkarteari: «Ezinbestekoa da haur, nerabe eta gazteen beharrei erantzuteko moduko jarduerak antolatzea».

Eta, behar horiei begira, Zumardiak barne hausnarketa sakon baten ondoren iragarri du aurtengo Olentzaroren Basoaren irekiera, «aspaldiko euskal usadioak, natura eta feminismoa ardatz hartuta». Basoak izango du protagonismoa, eta basoko elementu eta pertsonak; modu horretan, Olentzaroren pertsonifikaziotik aldendu nahi izan dute, eta urte sasoiaren garrantziari fokua jarri. Bide beretik, Olen-

tzero eta Mari Domingi bikotearen irudia atzean uztea da Zumardia elkartearen helburua, Mari Domingiren bigarren planoko izaera, nahiz Olentzaroren eredu «infantilizatua» zalantzan jarritz. «Eguzkia, ura eta sua ezin-

besteko izango dira Olentz-Aroa ospatzeko», eta horiek guztiak ipuin kontalariak eta aktoreek aurkeztuko dizkiete bisitariei.

Olentzero bera goratu beharrean, naturari berari egin nahi diote gorazarre eta, horrekin,



Datorren astelehenean hasiko dira Olentzaroren Basoko bisitak. ZUMARDIA

Mariri; zaila dela badakiten arren, Gabon kontsumistetatik ahalik eta gehien aldentzea da epe luzerako beren buruari jarri dioten helburuetako bat.

Eguberriak bizi eta ikusteko modu hori bilduz, Juan Kruz Igerabidek *Olentzaroren Basoa* izeneko ipuintxo bat sortu du, *Eguberria* lanetik abiatuta; bisitari bakoitzari banatuko diote ipuina, opari.

SARRERAK ESKURAGARRI

Olentzaroren Basoa ezagutzeko bisitak 3 eta 8 urte bitarteko haurrentzat izango dira, eta haur bakoitzarekin heldu batek joan ahal izango du, gehienez ere. Horrela, hilaren 15era bitarte, www.zumardia.eus atarian eskuragarri izango dira sarrerak, doan.

Zumardia elkarteak egunero bisita bat gordeko du, merkatariei, Txolarte zentroko kideei, adineko pertsonen nahiz euskara ikasten ari direnei begira.

Jakin-mina piztu du Alzoko Azokak

Olentzerotan Jakin-Minez ekitaldiei hasiera indartsua eman diete, Alzonen; frontoia bete postuk jende asko bertaratu du azokara



Postu ugari eta estilo askotakoak izan ziren eguraldi txarra dela eta, frontoian. J. ARTUTXA

Josu Artutxa Alzo

XXIII. Olentzerotan Jakin-Minez ekimena abiatu zuten, igandean, Alzonen, IV. Azokarekin. Goizean zehar, 35 postu bisitatu, produktuak dastatu, erosi eta nekazari nahiz artisauekin hitz egiteko aukera izan zuten bertaratuek. Eguraldiagatik, frontoian egin zuten aurten ere; hala ere, jende ugari gerturatu zen.

Herritarrek nahiz kanpotik etorritakoek postuz bete zuten frontoia, eta txiki geratu zen. Janariaren eta edariaren postuak ez ziren falta, eta artisau postu ugari izan zen. Baina, barrutik asetzeko, taloen postu bat ere izan zen, eta herriko gazteek ere barra jarri zuten, pintxoekin eta edariekin.

Hurrengo hitzordua ostiralean dute, 18:30ean. Loatzo musika eskolako Alzoko eta inguruetako herrietako musikari gazte txoek eta gazteek eskainitako kantu eta musika emanaldia izango da.



Adin guztietako herritarren gustuko produktuak bildu zituzten azokan. J. ARTUTXA

VI. Pello Mari Otaño bertso paper lehiaketako sariak banatu dituzte

Epaimahaiak jasotako lanen «kalitatea» azpimarratu du, «bereziki, gaztetxo eta gazteen mailan»



Aurtengo bertso paper lehiaketako saridunak. ATARIA

Erredakzioa Zizurkil

Teodoro Hernandorena Kultur Taldeak eta Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarguneak elkarlanean antolatutako bertso paper lehiaketako sariak banatu dituzte. Seigarren edizioa izan da aurtengoa.

Ahalik eta bertso hoberekin pentsatu eta paper batean idaztean datza Pello Mari Otaño bertso paper lehiaketak. Behin Harituzeko hainbat kidek epaia prestatuta, ostegunean egin zuten sari banaketa, Zizurkilgo Iriarte etxean. Sari banaketaren ostean, bertso-afaria egin zuten Anjel Mari Peñagarikano eta Mikel Mendizabal bertsolariekin.

Helduen mailan hutsik utzi dute lehen saria, epaileen adostasun falta medio. Sari hori ez dute eman, eta bi bigarren sari ematea erabaki du epaimahaiak. Bigarren postuetako bat Mikel Artolaren *Zatzaizkidana baldin-banatzazu* lanarentzat izan da,

eta beste bigarren saria Lierni Rekondok idatzitako *Kausalitateak* eskuratu du.

Gazteen mailan, lehen postua Aner Peritzek eskuratu du *Aulki bat hutsik* lanarekin. Atzetik, bi bigarren sari banatu dituzte; Maddi Aiestaranen *Zain* eta *Itsu* bertso paperrei, hain zuzen ere. Gaztetxo mailan, *Kanpoko bizitza hori* lanak eskuratu du lehen saria, eta Nerea Isusik idatzitako dira. Kasu honetan ere, bi bigarren sari banatu dituzte, *Euskaldunon hizkuntza* Izar Zelarainena eta *Ezintasuna* Beñat Mateosena.

Epaimahaiak jasotako lanen «kalitatea» azpimarratu dute, «bereziki, gaztetxo eta gazteen mailan». Neurri, gai eta estilo oso ezberdineko lanak jaso dituztela diote eta ez dela lan erraza izan aitortu dute «maila bakoitzean bi bereizi eta epaileen arteko adostasuna lortzea». Hori dela eta, sarietan hainbat aldaketa egin dituzte.




zozketak

Atarikideentzat **saski bat** daukagu



Errigorako
SASKI Txuria
Nafar hegoaldeko
uzta eskutik eskura

Atarikideentzat **lau sarrera** ditugu



Gipuzkoako Bertsolari
txapelketa:
Finalaeko saiorako
bi sarrera bikoitz

Abenduak 15, 17:00etan,
Donostiako belodromoan.

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu



**DELTECO GIPUZKOA
BASKET - LIBERBANK
OVIEDO
BALONCESTO
partida ikusteko**

Abenduak 12, 18:00etan,
Donostia Arena.

Hitz zahar eta berrien bila, hitzolariak

Euskararen Egunkak herrietara ekitaldi ezberdinak ekarri ditu, eta Belauntzan eta Ikaztegiatan, hitz eta pitz, hitzekin jolastu dute; Bidania-Goiatzen, besteak beste, kantuan alaitu dute herria



Sortutako hitzak nahiz lehen herrian entzuten zirenak bildu zituzten, Belauntzan, antzerkiaren aurretik. JOSU ARTUTXA

Erredakzioa

Ia astebete pasa bada ere Euskararen Nazioarteko Egunkak, Belauntzan igandean egin zuten ospakizuna, herriko tabernan. Hitzolariak ekimenaren barruan, herritarrek sortutako hitzak nahiz lehen herrian entzuten zirenak eta galdu zirenak bilduzeko aukera izan zuten. Ondoren, antzerki saioaz gozatu zuten, haur nahiz helduek.

Taberna kanpoaldea hariz bete zuten, eta bertan zintzilikatuz zituzten hitzak. Taberna barruan, ordea, bi ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten. Batek, Bea Larrañagak, *Hemendik Parisera* antzezlanarekin, zenbait barre algara eragin zituen ikusleen artean. Haurrek ere obrako protagonista izateko aukera izan zuten. Ondoren, berriz, Asier Kidam magoaren txanda izan zen, haurrak nahiz helduak txundituta utziz. Tartean, gainera, hamaiketako egin zuten.

Kantu Bira ospatu zuten, berriz, ostiralean Bidania-Goiatzen. Herritarrak Euskararen Astearen barruko ekimenean, herria euskal kantuz girotu eta alaitu zuten. Ostegun iluntzean, afari-meriendaren bueltan elkartu ziren ikaztegiatarrak Herriagintza elkartearen. Lehenik eta behin, hitz zaharrak edota herrian erabiltzen direnak bildu zituzten, berriak sortzen saiatuz. Behin hitzak zintzilikatuta, mahaiaren bueltan elkartu ziren, hitz eta pitz, jan-edanari ekiteko.



Hitzolariak ekimenarekin bat egin zuten, Belauntzan. J. ARTUTXA



Hitz mordoak bildu zituzten ikaztegiatan, eta jarraian mahaian eseri ziren. E. MAIZ



Kantu bira egin zuten, eztrariak berotuz eta herria girotuz. ATARIA

Zeinu Hizkuntzako Nazioarteko Zinema Jaialdiko sariak banatu dituzte



X. Zeinu Hizkuntzako Nazioarteko Zinema Jaialdiko sari banaketa. IRATI SAIZAR

Erredakzioa Tolosa

Hamalau film laburrek hartu zuten parte X. Zeinu Hizkuntzako Nazioarteko Zinema Jaialdian; film labur onenaren saria David Ellingtonen *Hope* filmak eskuratu zuen.

Gainditzen Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarteak antolatuta, X. Zeinu Hizkuntzako Nazioarteko Zinema Jaialdia ospatu zen ostiral arratsaldean zehar Tolosako Leidor aretoan. Argentinako, Erresuma Batuko, Espainiako, Indiako eta Kataluniako hamalau film labur aritu ziren lehian. Jendetza gerturatu zen aretora, eta arratsalde osoa pasa zuten film ezberdinei begira, tartean, atsedetak eginez. Jaialdiari amaiera emateko sari banaketa egin zuten.

Epaimahai lanetan Angel Rojo, Jose Luis Armisen eta Margu Mendoza aritu ziren, baina publikoak ere izan zuten film labur hobereana zein izan den hautatzeko eskubidea. Publikoak *Hope* aukeratu zuen, eta film labur onenaren saria ere film horrek berak jaso zuen. Zuzendari

onenaren saria ere *Hope* filma gidatu duenak jaso zuen, David Ellingtonek. Zuzendari gazte onenaren txapela, aldiz, Pau Escudero jantzi zuen, *La Sombra* film laburragatik. Gidoirik onena, *140 palabras* film laburarentzat izan zen, Lola Garciairen gidaritzapean egina. Muntaketarik onenaren saria Paco Lopezek eskuratu zuen, *Casa Alavedra* filmagatik. Film labur horrek berak eraman zuen argazkirik onenaren saria, eta Rafa Puig izan zen saria jaso zuena. Aktore onenaren sariak Julia Wejnar eta Jesus Benabarrek jaso zituzten.

Lehiaketa nagusia igarota, Tolosa ezagutzeko txangoa egingo zuten hurrengo goizean, Euskal Herria plazatik abiatuta, bazkaria egin zuten jarraian. Arratsaldean, berriz, aurreko bederatzirteetan garaile izan ziren film lehiaketa egin zuten Leidorren, eta irabazleen arteko irabazlea aukeratu zuten ondoren. Berritasun moduan, Rozalen abeslari espainiarraren eta haren interprete Beatrizen emanaldia izan zuten sari banaketaren ondoren.



KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

13. jardunaldia

Esc. Ciu. Guadalajara-Lauburu 7-4
Laskorain-Auzoak de Zierbena 1-1

Saillapena

1. San Juan	27p
2. Tafatrans	27p
3. Otxartabe	26p
4. Ibararte	26p
5. Auzoak de Zierbena	26p
6. Guardo Deporçyl	25p
7. Lauburu Ibarra	21p
8. Juventud del Circulo	21p
9. Laskorain	17p

Hurrengo jardunaldia

San Juan (1)-Laskorain (9)
Lauburu (7)-Ibararte (4)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

12. jardunaldia

Avefor Huesca 28
Tolosa Eskubaloia 24

Saillapena

1. Trapagaran	21p
10. Romo Indupime	10p
11. Tolosa Eskubaloia	9p
12. Somos Eibar Eskubaloia	9p
13. Egja Kopidin	9p
14. Urduliz Eskubaloia	9p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa Eskubaloia (11)
Trapagaran (1)

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

Atsedaldia izan dute

Saillapena

1. Bizkerre	28p
2. Añorga	28p
10. At Revellin	12p
11. Mulier	12p
12. Tolosa CF	12p
13. Logroño B	8p
14. Itaroa Huarte	4p

Hurrengo jardunaldia

Oiartzun (9)-Tolosa CF (12)

HIRUGARREN MAILA

Atsedaldia izan dute

Saillapena

1. Portugalete	35p
2. Sestao River	32p
15. Lagun Onak	17p
16. Cultural de Durango	17p
17. Tolosa CF	17p
18. Sodupe	16p
19. Deusto	15p
20. Ariznabarra	6p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (17)-Balmaseda (4)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

12. jardunaldia

Urola-Tolosa CF 'B' 0-2

Saillapena

1. Leintz Arizmendi	34p
2. Tolosa CF 'B'	30p
3. Intxaurdi	26p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (2)-Bergara (6)

ERREGIONAL PREFERENTEA

Atsedaldia izan dute

Saillapena

4. Billabona KE	22p
6. Danena	18p
15. Tolosa CF 'B'	9p

Hurrengo jardunaldia

Danena (6)-Billabona KE (4)
Soraluze (9)-Tolosa CF 'B' (15)

LEHEN ERREGIONALA

13. jardunaldia

Intxurre-Usurbil 1-1

Saillapena

5. Intxurre 17p

Saskibaloia

GIZONEZKOEN 1. MAILA

Atsedaldia izan dute

Saillapena

1. Tecnum-Askatuak	6-2
2. Urgatzi	6-1
3. Universidad Deusto Loiola	5-3
4. Ordizia-Basoa Banaketak	5-3
5. Redline Mekanika TAKE	5-2
6. LBC Cocinas.com	5-1
7. Fundacion Bilbao Basket	3-5
8. Atletico San Sebastian	3-4

Hurrengo jardunaldia

Redline Mekanika TAKE (5)
LBC Cocinas.com (6)

EMAKUMEZKOEN 1. MAILA

Atsedaldia izan dute

Saillapena

1. Zast Neskak	5-1
2. Antigua-Luberri	5-1
3. Atletico San Sebastian	5-1
4. Ostadar	5-1
5. TAKE	4-2
6. Grupo Eme Oiarso	4-2
7. ArriBKL Senior Neskak	3-3
8. CD Internacional	2-4

Hurrengo jardunaldia

TAKE (5)-Grupo Eme Oiarso (6)

Hiru pilotariek lortu dute irabaztea

Jakak, Artolak eta Altunak Binakakoaren hirugarren jardunaldiko partidak irabazi dituzte

Erredakzioa

Binakako txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu zen asteburuan. Eskualdeko hiru ordezkariak garaile izan ziren. Jaka eta Artola sailkapen nagusiaren lehen postuan daude, hiru garaipe eta galdutako partidarik gabe. Altuna III.ak txapelketako lehen puntua lortu zuen igandean, Eibarko Astelena pilotalekuan.

Jakak eta Zabaletak Ezkurdia eta Martija bikoteari irabazi zioten, 22-20. Jardunaldiko partidarik politena jokatu zuten Labriten Aspeko lau pilotariek. Aurrelarien artean hutsegite dezente izan baziren ere, asko arriskatu zuten Ezkurdiak eta Jakak, tanto ederrak utziz. Bere aldetik, atzelariak sendo aritu ziren. Martija seguru agertu zen, baina Zabaletak, momentuz, txapelketako atzelari onena dela erakutsi zuen, eta ez zuen hutsegite bakar bat ere egin. Laugarren jardunaldian, Eibarko Astelena, Laso-Albisuren aurka jokatu dute, igandean.

Artolak eta Imazek 14an utzi zuten Bengoetxea VI.a eta Mariezkurrena II.a. Baikoko azken bikote izan behar zutenek, enpresako hiru bikoteraren aurka hiru garaipen lortu dituzte. Azkenak, joan den ostiralean Tolosa-



Jokin Altuna, artxiboko irudi batean. JOSU ARTUTXA

ko Beotibarren. Sailkapen nagusiaren lehen postuan daude Jaka-Zabaletarekin berdinduta. Hurrengo partida, berriro Beotibarren jokatu dute, astelehenean, Irribarria-Rezusta bikotearen aurka.

Altuna III.ak eta Galartzak 22-17 irabazi zioten Irribarriari eta Rezustari. Jokin Altunak horrela jolasten duenean aurkariek jai izaten dute. Ohi bezain artista eta buruz besteak baino azkarra goa izan zen. Hasierako tantoak albo batera utzita, partidaren zatirik gehienean Ladis Galartzaren laguntza izan zuen amezketarrak. Hurrengo jardunaldian Labriten jokatu dute bigarren puntua lortzeko asmoz. Aurrean Olaizola II.a eta Aretxabaleta izango dituzte. Urrutikoetxearen lesioagatik jokatu du Marokinako atzelariak.

PROMOZIO MAILAKOA

Hirugarren jardunaldian ere, Peña II.a tolosarrak Arangurenekin batera 22-15 irabazi zieten Arteaga II.ari eta Erasun zizurkildarrari. Azken honek lesionatuta dagoen Urretabizkaia II.a ikaztegiatarra ordezkatu zuen. Bigarren garaipena dute Peña II.ak eta Arangurenek, eta sailkapeneko laugarren postuan daude. Arteaga II.ak eta Urretabizkaia II.ak garaipen bakarra dute eta bosgarren postuan daude.

Asteburu honetan, laugarren jardunaldian, Peña II.ak eta Arangurenek Urretxun jokatu dute, ostiral arratsaldean, Egiguren V.a eta Erostarberen aurka. Bere aldetik, Arteaga II.ak eta Urretabizkaia II.ak igande arratsaldean jokatu dute Eibarko Astelena pilotalekuan, Elordi eta O. Etxeberriaren aurka.

Larrarte prest izango da Master Cupeko finalerako

Ostiralean bidaniarrak ez zuen jokatu Uharteko finala eskuko minez zegoelako

Erredakzioa

Miren Larrarte pilotari bidaniarra Uharteko Lau eta Erdiko Txapelketa jokatzekoa zen aurreko

ostiralean, Leire Garai gasteiztarren aurka. Azkenean, eskuko minetik ez zen berreskuratu eta ez jokatzeko erabaki zuen. Ruiz de Larramendik jokatu zuen Larrarteren ordezkari finala, eta 11-22 galdu zuen Garairen aurka.

Bestalde, asteburu honetan Miren Larrartek Laboral Kutxa Emakume Master Cup lau eta erdiko txapelketaren finala jokatu-

ko du Miriam Arrillagaren aurka. Barakaldon izango da partida, igandean. Ordurako eskuak ondo izatea espero du eta finala jokatu duela adierazi du. Larrarte lehenengo aldiz iritsi da txapelketa horretako finalera, eta aurtengoan lehenengo aldiz jokatu ari den pilota mistoaren modalitatean ari da parte hartzen.

Imanol Rojok 30. egin du Munduko Kopan

Eskiatzaile tolosarrak lehen proban lortu du denboraldirako zehaztuta zuen helburua

Erredakzioa Tolosa

Joan den larunbatean Lillehammerko (Norvegia) Skiathlon proban, 15 kilometro klasikoan eta etenik gabe beste 15 kilometro librean, Munduko Kopan puntuagarria, Imanol Rojo eskiatzaile tolosarrak emaitza bikaina lortu zuen, 30. postuan helmugaratuz. Beraz, denboraldirako zuen helburua lortu du lehenengo proban.

Indarberrituta dago Rojo Munduko Kopako hurrengo erronkei begira. Hala nola, datorren asteburuan Davosen izango



Imanol Rojo, Norvegiako Lillehammerko Skiathlon proban. ATARIA

dena (Suitza) eta, Eguberriak familian ospatuta, abenduaren 28tik urtarrilaren 5era egingo

den Ski Tourra, Lenzerheiden (Suitza) eta Toblach-Dobiacon eta Val de Fiemmen (Italia).



Urruzola, Azketa, Arbizu eta Labaka. OLATZ LASA/AIURRI

Final-zortzirenak jokatu dira Pebet Oroimenezkoan

Erredakzioa Amasa-Villabona

VIII. Antton Pebet Oroimenezkoaren lehen partidak jokatu dira Villabonako Bearzana pilotalekuan. Final-zortzirenak zeuden jokoan norgehiagoka horietan, eta lau bikotek egin dute aurrera. Beste lau bikote daude zain final-laurdenak jokatzeko asteburu honetan.

Ostegunean jokatutako partidetan, lehenengoan Arrieta-Ira-

zustabarrena bikoteak 22-14 irabazi zioten Gelis-Arangurenari. Bigarren partidari, irabazleak E. Labaka-Arbizu izan ziren, 22-18 gailendu baitziren Azketa-Urruzolari.

Ostiralean jokatutako partidetan, I. Egiguren-Telletxeak 22-11 irabazi zioten Lizaso-Arrizabalagari, jaialdiko lehen partidari. Bigarren partidari, Murua-A. Elizegik 22-14 irabazi zioten Urbieta anaiari.



Telletxea, Egiguren, Arrizabalaga eta Lizaso. AINHOA AROZENA/AIURRI

Salgai daude Tolosa CF-ren Kopako partidarako sarrerak

Erredakzioa Tolosa

Tolosa CF eta Valladoliden arteko Kopako futbol partida abenduaren 18an, asteazkenean, jokatuko da, 18:00etan, Berazubini. Dagoeneko sarrerak salgai daude bazkide eta abonatuentzat. Hain justu, hilaren 13ra arte dute aukera, Berazubini, 18:00etatik 20:00etara. Gainerako ikusleentzat, abenduaren 14tik 17ra, Iurre

Tabernan eta Shanti Kirolak dendan egongo dira sarrerak salgai.

Hauek izango dira sarreren prezioak: harmailan, helduak 20 euro, eta bazkideak, gazteak (12-20 urte) eta jubilatutak 10 euro; sarrera orokorra helduentzat 10 euro, eta bazkide, gazte (12-20 urte) eta jubilatutak 5 euro.

Bide batez, Tolosa CF klubetik azaldu dutenez, Kopako sarre-

ren salmentan aukera egongo da denboraldiko abonua erosteko, 30 euroan. Abonua erosiz gero, Kopako kanporaketaren sarrera erdi prezioan ateratzen dela gogora ekarri dute. Abonuekin gizonetzkoen Hirugarren mailako, emakumezkoen 1. Maila Nazionalako eta mutilen jubenil nazional mailako partidak ikusteko aukera dagoela jakinarazi dute klubetik.

Hilberriak eta urteurrenak

ATARIA jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2019KO ABENDUAK 10
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Eduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 10

AGENDA

Deialdiak

Zizurkil. Eguberrietako menua prestatzeko tailerra Xabi Tello sukaldariarekin, 19:00etan, Atxulondon.

Berastegi. Oinez Berastegi, 10:30ean plazatik abiatuta. Ondoren, hamaiketakoa.

Anoeta. Energia berriztagarriak zure etxean... posible da! hitzaldia, pleno aretoan, 18:00etan.

Tolosa. Mahai ingurua: Giza eskubi-deen urraketa, kultur etxean, 19:00etan.

Tolosa. Coppelia The Royal Ballet proiektzioa, Topic-en, 20:15ean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, agenda, Alain Rekondorekin zinema eta telesail proposamenak, kale kantoitik Iñaki Zubeldia, teknologiaren tartea Tolosaldea LHko informatikako ikasleekin, Patxadaz eta amaitzeko eskualdeko musikari baten proposamena.

12:00. Entzuteko jaiak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arroza sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Gure Txokotik. Gaurkoan, Amaia Goikoetxearekin.

24 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. Elkarrizketa (Leire Orbe)
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:15. Leihotik begira
22:45. Euskal Antzerki Topaketa
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. J.M. Etxebes-te. Gernikako Arbola, 3. 943 651040.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz. Amartz auzoa, 9. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Tenperaturaren gorakada, eta maximoak 12-14 graduan kokatuko dira. Goizean hodeiak, eta ondoren os-tarteak.

Bihar. Giro kaskarra bueltan. Tenperatura hotzagoa izango dugu, eta euria, batik bat, goiz erditik arratsaldera.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



HIZKUNTZA GUTXITUEZ HAUSNARKETA

Hizkuntza gutxituen inguruko esperientziak eta hausnarketak partekatzen egon dira astebetez Euskal Herriko eta Irlandako 32 gazte, tartean Zizurkilgoak. Europako hizkuntza aniztasunaren inguruan kontzientziatu eta Europako txoko desberdineko gazteek antzeko egoerak bizi dituztela ohartaraztea helburu duen Erasmus + programaren barruan egin dute egonaldia. Hala, izan dituzten jarduera desberdinen artean, Euskararen Egunaren harira, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak 32 gazteei harrera egin zien Foru Aldundian. ATARIA



EGIN ERRESERBA

ANOETA - 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
 TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



Informazio guztia:
 KALE BERRIA 48, BEHEA
 20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484
 943 69 02 97